

OHAR GARRANTZITSUA

Eskaera modu zuzenean egiteko, ondorengo urratsak eman beharko dira:

- 1) “Zure datu pertsonalak” / “Dokumentuak” atalean, eskaeran sartu nahi dituzun dokumentu guztiak igo beharko dira.
Gogoarazten da, deiak jasotzeko hizkuntza bat egiaztatu nahi denean, egiaztagiri hori bi ataletan sartu beharko dela:
 - “Hizkuntzak- hizkuntza-eskakizunak” (ez da baloratzen, baldintza baita).
 - Egiaztagiria euskara hizkuntzarena bada, “Euskara maila” atalean ere joango da. Egiaztagiria hizkuntza ez-ofizialena bada (ingelese/frantsesa), “Merezimendu akademikoak” / “Hizkuntzak” atalean ere igo beharko da.
- 2) “Eskari berria” atalean nahi den poltsa eskatuko da. Horretan, dokumentu guztiak agertuko dira eta eskaerari lotu beharko dira.

FAQ

UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN LAN POLTSETARAKO DEIALDIA

1. Zein da lan poltsetan sartzeko eskabidea aurkezteko epea?

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko irailaren 27tik urriaren 17arte bitartekoa izango da.

2. Eskabidea paperean aurkez dezaket erregistroko bulego fisikoen bidez?

Ez. Eskabidea nahitaez telematikoki aurkeztu beharko da, gaitutako aplikazioaren bidez.

3. Gradu titulu bat daukat, bai eta doktorego bat ere, eta sartzeko baldintzak betetzen ditudan sail bateko arlo jakin bateko lan poltsara aurkeztu nahi dut. Eskabidea sail horren arloko lan poltsa osagarria (gradua) eta doktorearen (doktoregoa) lan poltsa osagarria, bietara, aurkez dezaket edo aurkeztu behar dut?

Zuzenena izango litzateke eskabidea soilik doktoreen poltsan aurkeztea; izan ere, doktoreen poltsatik ateratzen den hautagai zerrendak lehentasuna izango du sail eta arlo horretan sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko orduan. Doktoreen zerrenda agortzen bada, orduan deituko zaie poltsa osagarriko hautagaiei.

4. Ikusi dudanez, eskabidea aurkeztu nahi dudan lan poltsan nik ez dudan titulazio espezifiko bat eskatzen da, baina oso antzeko titulazio bat daukat. Eskabidea aurkez dezaket?

Zure intereseko lan poltsan zehaztutakoarekin bat ez datorren titulazio bat baduzu, baina kideetasunagatik baliokidea izan daitekeela uste baduzu, eskabidea aurkeztu ahal izango duzu, eta titulazio hori baloratu egingo da, onargarria den erabakitzeke.

5. Ikusi dut sartu nahi dudan lan poltsan baldintza espezifiko batzuk ezartzen direla. Zer esan nahi du horrek?

Horrek esan nahi du lan poltsan sartzeko baldintza orokorrez gain (tasak, NANA, hala badagokio, titulazio espezifikoa, etab.), poltsan sartzeko baldintza espezifikoak betetzen dituzula egiaztatu beharko duzula.

Baldintzak egiaztatzen dituzten agiri guztiak, baldintza espezifikoak barne, aplikazioko “Derrigorrezko Dokumentazioa” atalera igo beharko dira.

6. *Diplomatura titulua dut. Aurkez naiteke ordezkapen poltsen deialdira?*

Honako jakintza arlo hauetan bakarrik sartu ahal izango da diplomaturako titulazioa duten lan poltsa osagarrietan, baldin eta lan poltsa bakoitzean sartzeko ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira:

- Gorputz Adierazpidearen Didaktika.
- Musika Adierazpidearen Didaktika.
- Plastika Adierazpidearen Didaktika.
- Erizaintza.
- Fisioterapia.
- Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

7. *Irakasle lanetan aritu naiz UPV/EHUn. Horren ziurtagiria igo/egiaztatu behar al dut (zerbitzu-orria)?*

Ez, ez da beharrezkoa. Dokumentu hori ofizioz sartuko da aplikazioan, baldin eta aplikazioan bertan eskatzen baduzu, dagokion check-aren bidez.

8. *Aplikazioko merituen zeinbait ataletan “Ez erabili” testua dakar. Zer esan nahi du horrek?*

Honek esan nahi du atal horietan gordetako dokumentuak testu hori ez dakarren beste atal batzuetan igo behar direla, izan ere atal horiek desagertu egingo dira.

9. *Doktorego titulua lortzeko ikasketak egiten ari naiz, baina orain gradu titulua baino ez daukat. Gero, doktorego titulua lortutakoan, sar naiteke doktoreen lan poltsan?*

Sail eta arlo jakin bateko ordezkapen lan poltsa osagarrian bazaude eta, ondoren, doktorego titulua lortzen baduzu, arlo eta sail horretako doktoreen lehentasunezko lan poltsan sartu ahal izango zara. Horretarako, eskaera bat bidali behar diozu Lehiaketan Atalari (Lan poltsen bulegoa), doktorego titulua aurkeztuz. Kasu horretan, doktoreen zerrendan sartu ahal izango zara hasieran sartutako hautagaien ondoren, betiere doktoreen lan poltsan hasieran ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzu.

IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN POLTSETARAKO ESKAERA EGITEKO GIDA

PRESTATZE-LANETAN

Deialdiari buruzko informazio gehigarria

Deialdi eta Lehiaketan Ataleko telefono hauetan lor daiteke:

- 946015046
- 946012066

IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN POLTSETARAKO ESKAERA EGITEKO GIDA

- **Software eskakizunak**

Sistema eragilea (1)	Windows XP
	Windows 7
Nabigatzaileak (2)	Internet Explorer 7
	Internet Explorer 8
	Internet Explorer 9

(1) 64 bit-eko bertsioa

(2) 32 bit-eko bertsioa

Beste batzuk:

Ziurtatutako bereizmena: 1024 x 768.

Gai teknikoetarako eta bulegoen ordutegi arruntetik kanpo, EAZekin (Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Gerenteordetzako erabiltzaileentzako arreta zentroa) harremanetan jar zaitezke:

945014400

- **Datu Pertsonalak babestea**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datuak UPV/EHUren Irakasleen Ikuskaritza Zerbitzuaren fitxategi ez automatizatu batera pasatuko direla. Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubidea duzu, Irakasleen Zuzendaritzara idazki bat bidaliz (Sarriena auzoa zk.g., 48940 Leioa - Bizkaia), zure nortasun egiaztagiriaren

Orrialdea: **7**; guztira: **8**